



JARRAIPEN OSO ZABALA OSAKIDETZAKO LEHEN ARRETAKO GREBAN

Abusuzko gutxieneko zerbitzuak izan arren, zentro askotan jarraipena % 100ekoa izan da hainbat kategoriatan, eta zentro batzuek itxi ere egin behar izan dute.

Osakidetzaren erabateko immobilismoa eta negoziatorako erabateko borondaterik eza ikusita, otsailean bi greba egun deitzera eraman gintuzten aldarrikapenei erantzuteko, SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuok greba deitu genuen apirilaren 8an Lehen Arretan; ospitaleen sarean eta osasun mentalean maiatzaren 16an; eta Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan apirilaren 19tik 22ra.

Gaur, grebaren lehen egunean, Lehen Arretan, grebaren jarraipena oso zabala izan dela azpimarratu nahi dugu. Osasun zentro askotan, grebaren jarraipena, hainbat kategoriatan, % 100ekoa izan da. Zentro batzuk itxita egon dira, jendearentzako arretarik gabe, deialdiaren jarraipen masiboaren ondorioz bezeroarentzako arreta-arloetako langileen artean, hala nola Arangoiti, La Merced edo Altamira Bizkaian, edo Aranbizkarra II, Gazalbide edo Valles Araban, eta Lazkaon Gipuzkoan. Aranbizkarra I, Irun Centro, Repelega edo Mina del Morro bezalako zentroetako medikuntzan, pediatrian edo erizaintzan jarraipena oso zabala izan da ere. Guztira, jarraipena %50 ingurukoa dela esan dezakegu.

Aldarrikapen egun honetan, Lehen Arretako langileek, herritarrekin batera, manifestazioak egin dituzte EAEko hiru hiriburuetan, goizeko 12tan, eta mobilizazio jendetsuak izan dira hauek ere.

Zalantzarik gabe, horrek guztiak argi uzten du Eusko Jaurlaritzak azken hamarkadan aurrera eraman dituen murrizketa eta austeritate politiken eta baita planifikazio ezaren ondorioz, Lehen Arretak pairatzen duen gainkarga eta egiturazko desegitea. Arreta-maila honen etorkizuna dago jokoan; izan ere, premiazko eta sakoneko konponbideak hartu ezean, egoerak okerrera egingo du datozen urteetan.

Greba arrakastatsua izan den arren, salatu behar dugu, beste behin ere, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza bera grebaren jarraipena oztopatzen eta minimizatzen saiatu direla, sistematikoki egiten duten bezala:

- Lan Sailak emandako Gutxieneko Zerbitzuen Aginduak grebarako eskubiderik gabe utzi ditu kolektibo asko, gutxieneko zerbitzua plantillaren % 100ekoa dela ezarri baitu: EAGetako langileak, larrialdietako langileak, kontaktuen jarraipena eta miaketa, lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuak eta Prebentzio Medikuntza, eta txertaketa. Horrela, Osasun Larrialdiaren indarraldia bertan behera geratu bada ere, eta herritarrentzat ezarritako neurri gehienak altxatzen diren bitartean, Eusko Jaurlaritzak pandemiaren aitzakia erabiltzen jarraitzen du grebarako oinarritzko eskubidea oztopatzeko eta baita baliogabetzeko ere.
- Hori gutxi balitz, Aginduaren gehiegizko interpretazioa salatu behar dugu, bereziki ESI batzuen aldetik. Hala, Aginduak larunbat bateko ohiko zerbitzua eman behar dela ezartzen duen arren, aurreko deialdietan gertatu zen bezala, ESI batzuek asteburuetan irekita ez dauden osasun-zentroak irekitzeko agindu dute. Gainera, nahiz eta grebalariak ez direnak lanean egon, gutxieneko zerbitzuak betetzera behartu dituzte greba egin nahi zuten pertsonak. Hori guztia grebaren eragina minimizatzeko helburuarekin. Aldi berean, ESI askotan, grebaren eragin handia duten zentroetako pazienteen zita bertan behera uzteko agindua eman da, berriz ere grebaren eragina minimizatzeko eta erabiltzaileek protesta ez nabaritzeko.

- Bestalde, grebaren jarraipena zenbatzeko orduan, Osakidetzak beti manipulatzeko datuak, eta, beraz, grebarekin bat egiteko aukera izan dutenen artean zenbat jendek egin duen greba adierazi beharrean (zerbitzu minimo gisa izendatutakoek ez daukate aukera hori), plantilla osoa hartzen du oinarritzat, nahiz eta jakin plantilla horren zati handi batek ezin duela greba egin. Datu errealak emateko eskatzen diogu Osakidetzari.

SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek dei egiten diegu Osakidetzari eta Osasun Sailari inposizioaren eta propagandaren bidea uzteko eta elkarrizketa eta negoziazioa berreskuratzeko, egiturazko eta sakoneko irtenbideak abian jartzeko. Lehen Arretak urteak daramatza desegitea eta lan gainkarga sistematikoa pairatzen. Gogora dezagun 2019an Lehen Arretak 3 greba-egun egin zituela jarraipen masiboarekin, eta kolektibo horren jarraipena ere masiboa izan zela otsailean deitutako bi greba-egunetan.

Bistan dago, ordea, Osakidetza ez dagoela prest grebara eraman gaituzten aldarrikapen bakar bati ere erantzuteko. Mahai Sektorialeko azkeneko bieleran, apirilaren 1ean egindakoa, Osakidetzak ukatu egin zituen Lehen Arretako plantillaren lan-baldintza eskasak, eta arreta-maila hori uzten duten langileek, prekarietate horrekin zerikusirik ez duen hautu propio batean oinarrituta egiten dutela esan zuen. Era berean, uko egin zion itxitako EAGak berriro irekitzeari.

Bitartean, aurreko egunean, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen 600 milioi euro aurreztu zituela 2021ean. Argi dago, beraz, osasun arloko inbertsioa ez dela lehentasunezkoa Jaurlaritzarentzat.

Mobilizazioa inoiz baino beharrezkoagoa da. Horregatik, dei egiten diegu Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko langileei eta ospitale sareko eta osasun mentaleko langileei datozen greba-egunetan parte hartu dezaten.

Euskal Herria, 2022ko apirilak 8.



AMPLIO SEGUIMIENTO DE LA HUELGA DE ATENCIÓN PRIMARIA DE OSAKIDETZA

A pesar de unos servicios mínimos abusivos, en muchos centros el seguimiento ha sido del 100% en varias categorías y hay centros que incluso han tenido que cerrar.

Ante el más absoluto inmovilismo de Osakidetza y su absoluta falta de voluntad negociadora para atender las reivindicaciones que nos llevaron a convocar dos jornadas de huelga el pasado mes de febrero, los sindicatos SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT y ESK convocamos huelga en la Atención Primaria el 08 de abril; huelga en la red de hospitales y salud mental el 16 de mayo; y huelga en el Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos del 19 al 22 de abril.

Hoy, primera jornada de huelga, en Atención Primaria, tenemos que decir que el seguimiento de la misma ha sido muy amplio. En muchos centros, el seguimiento de la huelga en varias categorías ha sido del 100%. También hay centros que han permanecido cerrados, sin atención al público, debido al seguimiento masivo de la convocatoria entre el personal de las áreas de atención al cliente (AAC) como es el caso de Arangoiti, La Merced o Altamira en Bizkaia, o Aranbizkarra II, Gazalbide o Valles en Araba o Lazkao en Gipuzkoa. Cabe destacar también el amplio seguimiento en categorías como medicina, pediatría o enfermería en centros como Aranbizkarra I, Irun Centro, Repelega o Mina del Morro. En números totales, podemos afirmar que el seguimiento ronda el 50%.

En esta jornada reivindicativa, los trabajadores y trabajadoras de la Atención Primaria, junto con la ciudadanía, han realizado manifestaciones en las tres capitales de la CAPV a las 12 de la mañana, movilizaciones que también han sido secundadas de forma multitudinaria.

Sin duda, todo ello da buena cuenta de la situación de sobrecarga y desmantelamiento estructural que padece la Atención Primaria debido a las políticas de recortes, austeridad y falta de planificación que el Gobierno Vasco ha llevado adelante en la última década. Está en juego el futuro de este nivel asistencial ya que, sin o se adoptan soluciones urgentes y de calado, en los próximos años la situación va a ir a peor.

A pesar del éxito de la huelga, debemos denunciar, una vez más, que tanto el Gobierno Vasco como la propia Osakidetza, han intentado obstaculizarla y minimizar su seguimiento, tal y como vienen realizando de manera sistemática:

- La Orden de Servicios Mínimos dictada por el Departamento de Trabajo ha dejado sin derecho a la huelga a colectivos muy numerosos, ya que ha establecido que el servicio mínimo es del 100% de la plantilla: personal de PAC, emergencias, rastreo y seguimiento de contactos, servicios de prevención de riesgos laborales y Medicina Preventiva y vacunación. Así, mientras ha decaído la vigencia de la Emergencia Sanitaria y se están levantando las práctica totalidad de las medidas establecidas para la ciudadanía, el Gobierno Vasco sigue utilizando la excusa de la pandemia para obstaculizar e incluso anular el derecho fundamental a la huelga.

- Por si esto fuera poco, tenemos que denunciar la interpretación abusiva de la Orden, especialmente por parte de algunas OSIs. Así, y a pesar de que la Orden establece que el servicio que se debe prestar es el habitual de un sábado, como ya ha sucedido en anteriores convocatorias, algunas OSIs han ordenado la apertura de centros de salud que no permanecen

abiertos los fines de semana. Además, aún cuando había no huelguistas trabajando, se ha obligado a hacer servicios mínimos a personas que sí querían secundar la huelga. Todo ello con el objetivo de minimizar el impacto de la huelga. Paralelamente, en muchas OSIs, se ha ordenado anular la cita de los y las pacientes en los centros con alta incidencia de la huelga con el objetivo nuevamente de minimizar su impacto y que usuarios/as no perciban la protesta.

- Por otro lado, a la hora de cifrar el seguimiento de la huelga, Osakidetza siempre manipula los datos de manera que, en vez de señalar cuánta gente ha hecho huelga de entre aquella que ha tenido la oportunidad de secundarla (ya hemos señalado que los/as designados/as como servicio mínimo no tienen esa opción), toma como base la plantilla total, aún sabiendo que una parte importante de esa plantilla no puede secundar la huelga. Exigimos a Osakidetza, que ofrezca datos reales.

Los sindicatos SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT y ESK hacemos un llamamiento a Osakidetza y al Departamento de Salud para que abandonen la senda de la imposición y la propaganda y recuperen el diálogo y la negociación para poner en marcha soluciones estructurales y de calado en un nivel asistencial que lleva años pidiendo a gritos una solución a la situación de desmantelamiento que padece. Recordemos que ya en el año 2019 la Atención Primaria secundó de manera masiva 3 jornadas de huelga, como también fue masivo el seguimiento de este colectivo en las dos jornadas de huelga convocadas el pasado mes de febrero.

A la vista está, sin embargo, que Osakidetza no está dispuesta a atender ni una sola reivindicación de las que nos han llevado a la huelga. En la reciente reunión de la Mesa Sectorial celebrada el pasado 1 de abril, Osakidetza llegó a negar las precarias condiciones laborales de la plantilla de Atención Primaria llegando a afirmar que los y las profesionales que abandonan ese nivel asistencial lo hacen en base a una elección propia que nada tiene que ver con esa precariedad. Se negó asimismo a hablar de la reapertura de los PACs cerrados o cuyo horario se ha restringido.

Entretanto, un día antes, el Gobierno Vasco hacía alarde de haber ahorrado 600 millones de euros durante el ejercicio 2021. Queda claro, por tanto, que la inversión en sanidad es vista como un gasto no prioritario por este Gobierno.

La movilización es más necesaria que nunca. Es por ello que hacemos un llamamiento a la plantilla del Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos y a los trabajadores y trabajadoras de la red de hospitales y de salud mental, a secundar las próximas jornadas de huelga convocadas.

Euskal Herria, 08 de abril de 2022.